



ORAINDIK HANGO OIHARTZUN HOTS BAT



Doinuaren sortzailea: Imanol Larzabal kantaria. "Naiari" sehaska kanta.
Bertso honen egilea: Aitor Mendiluze (1975 Andoain, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

2017ko Txapelketa Nagusian erabili zuten bertsoan lehen aldiz Aitor Mendiluzek eta Maialen Lujanbiok, buruz burukoan. Gaia: Bake artisauak zarete. Lehengo larunbatean, lanean aritu zineten Parisen. Astebete pasatu da, eta etorkizunari begira jarri zarete.

"Bake artisauak" edo "bakegileak": Ipar Euskal Herriko herritar ekintzailez osatutako talde bat da, 2017an ETA armagabetzea lortzeko bitartekaritza lanak egin zituen ETArekin.

Oraindik hango oihartzun hots bat
besterik ez det **aditzen**
herriak zerbait behar zuela
lehengo astean **argi zen**
eta nahiz eta saiatu geran
gu bide hori **argitzen**
bidea ez zen Parisen hasi
ta ez da amaitzen **Parisen.**

